3. mailako Tailer Bateratua, 2012-2013 ikasturtea

Hirigintza III. Hirigintza legedia irakasgaiaren azalpena



Ariketa Aginagan (Usurbil, Gipuzkoa) garatuko da. Bi azterketa-eremu proposatu dira: handi bat, 122.51 hektareako azalerakoa (irudian, zuriz dagoen guztia), eta txiki bat, haren barnean, 28.11 ha-koa (marra etenaren barruan).

Eremu txikiaren barruan jarduera-eremu bat mugatuko da, zati bat lurzoru urbanizagarrian eta beste bat hiri lurzoruan edukiko duena; bere azalera, gehienez, eremu txikienaren erdikoa izango da. Bertan, hirigintza-garapen berri bat planteatuko da, etxebizitza-erabilera bereizgarri edukiko duena, eta, aurretik dauden eraikin eta sistema orokorrekin (eta dagozkien zortasunekin) bilbe koherente bat sortuko duena.

Halaber, gainerako eremuen trataerari ere arreta berezia eskainiko zaio, bai hiri-lurzoruan bai urbanizaezinean. Eraikigarritasun fisiko edo gordina 110.000 m^2(sabai)-koa izango da, zeinetan % 75, gehienez, etxebizitza-erabilerakoa izango den. Espazio libreen, ekipamenduen eta babestutako etxebizitzen erreserbari dagokionez, EAEko 2/2006 Lurzoruaren Legeak eskatutako gutxieneko estandarrak beteko dira.

Ariketa bost ematetan banatuko da. Lehenengo lau emateak taldeka egingo dira (hirukoteak), eta, azkena, banaka:

1. ematea: Azterketa-eremu handiaren analisia eta jarduera-eremuaren hautaketa
(taldekako ariketa)

Edukia:
- Azterketa-eremu handiaren egungo hirigintza-informazioa.
- Azterketa-eremu handiko sistema orokorren (eta haien zortasunen) analisia.
- Azterketa-eremu handiaren lurzorua klasifikatzeko proposamena, eta hiri-lurzoruko area eta lurzoru urbanizagarriko sektoreen mugaketa.
- Egungo egoeraren diagnostikoa.

Planoak:
1.1.- Inguru fisikoari buruzko hirigintza-informazioa: morfologia eta maldak, hidrologia, eguzkiztapena, landaredia, paisaia. Diagnostikoa
1.2.- Plangintzari buruzko hirigintza-informazioa: klasifikazioa, kalifikazioa, sistema orokorrak, zortasunak eta jarduera-eremuaren mugaketa. Diagnostikoa

2. ematea: Jarduera-eremurako analisia eta proposamen orokorrak (taldekako ariketa)

Edukia:
- Jarduera-eremuaren mugaketa eta azterketa-eremu txikia planifikatzeko proposamena.
- Jarduera-eremuan eragina duten sistema orokorren eta zortasunen analisia, eta antolakuntzaz kanpoko elementuen zehaztea.
- Jarduera-eremurako irisgarritasun-proposamena.
- Jarduera-eremurako hirigintza-ezarpenerako proposamena (lur-mugimenduak, etab. Oinplanoa eta sekzioak)

Planoak:
2.1.- Azterketa-eremu txikirako plangintza-proposamen berria: klasifikazioa, kalifikazio globala, sistema orokorrak, zortasunak, jarduera-eremuaren mugaketa eta hirigintza-parametroak.
2.2.- Jarduera-eremuaren kanpo-baldintzak: sarbidea eta inguruarekiko komunikazioa. Jarduera-eremuaren barne-baldintzak: antolakuntzaz kanpoko elementuak (eraikinak, azpiegiturak eta instalazioak) eta jarduera-eremuko zortasunak.
2.3.- Jarduera-eremurako hirigintza-ezarpenaren hasierako eskema (lur-mugimenduak, etab. Oinplanoa eta sekzioak). Hustulan/betelan erlazioa.

3. ematea: Antolakuntzaren aurrerapena (taldekako ariketa)

Edukia:
- Bilbea antolatuko duen eskemarako gerturatzea: erabilera eta jabego publikoko espazio libreen, eta espazio partzelatuen antolakuntza.
- Kalifikazio xehea.

- Eraikinen antolakuntza, lurraren mailatik gora eta behera, eta haien erlazioa hiri-bilbearekiko (oinplanoak eta sekzioak).
- Hirigintza-parametroak eta -estandarrak.
- Eraikin-tipoen adibideak.
- Bolumetria.

Planoak:

3.1.- Hiri-bilbearen aurrerapena: partzelazioa eta kalifikazio xehea. Sistema orokorrak, tokiko sistemak eta hirigintza-estandarrak.

3.2.- Lurraren mailatik gorako antolakuntzaren aurrerapena, eta haren erlazioa hiri-bilbearekiko (oinplanoa eta sekzioak).

3.3.- Lurraren mailatik beherako antolakuntzaren aurrerapena, eta haren erlazioa hiri-bilbearekiko (oinplanoa eta sekzioak).

4. ematea: Behin-betiko antolakuntza (taldekako ariketa)

Edukia:
- Partzelazioa eta kalifikazio xehea.
- Eraikinen eta espazio libreen antolakuntza (oinplanoak eta sekzioak).
- Hirigintza-parametroak.
- Eraikin-tipoen adibideak.
- Bolumetria.

Planoak:

4.1.- Jarduera-eremurako behin betiko hirigintza-ezarpena (lur-mugimenduak, etab. Oinplanoa eta sekzioak). Hustulan/betelan erlazioa.

4.2.- Hiri-bilbea: partzelazioa eta kalifikazio xehea. Sistema orokorrak, tokiko sistemak eta hirigintza-estandarrak.

4.3.- Lurraren mailatik gorako antolakuntza orokorra, eta haren erlazioa hiri-bilbearekiko (oinplanoak eta sekzioak).

4.4.- Lurraren mailatik beherako antolakuntza orokorra, eta haren erlazioa hiri-bilbearekiko (oinplanoak eta sekzioak).

4.4.- Eraikin-tipoak

4.5.- Hiri-irudia. 3D

5. ematea: Partzelaren hirigintza-fitxa (banakako ariketa)

Edukia:
- Partzela baten hirigintza-fitxa (Arkitektura Proiektuak irakasgaian matrikulatuta egotekotan, irakasgai horretarako garatutako proiektuarena).

Planoak:

5.1.- Partzelaren hirigintza-fitxa: Lurraren mailatik gorako eta beherako antolakuntza, erabilera xeheak, hirigintza-parametroak eta ordenantzak.

Emateak tailer bateratuko emateekin batera emango dira, dagozkien datetan.

Planoak emango dira PDFan zein paperean, A1 formatuan (paperezkoak, A4ra tolestuta).

Donostian, 2012ko irailaren 5ean
Hirigintza III. Hirigintza legedia irakasgaiko irakasleak